NAFARROAKO KOKAERA ETA MUGAK

Nafarroako Foru Komunitatea Espainia iparraldean dago, Pirinioetako mendebaldean..

Nafarroa ipar hemisferioko alderdi epelean dago, baina Kantzerreko Tropikotik hurbilago zirkulu polar artikotik baino. Horrek eragin egiten dio klimari.

Nafarroak 10.421 km2-ko azalera du, hau da, Espainiakoaren %2,06. Komunitate txikia da, beraz, hamaikagarrena hain zuzen Espainiako hamazapi komunitate autonomoen artean, eta hogeita hirugarrena berrogeita hamar probintzietan.

Hona Nafarroako mugak: iparrean Frantzia (163 km-ko muga). Hegoaldean Errioxa eta Zaragoza (149 km eta 45 km-ko muga, hurrenez hurren). Ekialdean Huesca eta Zaragoza (32 km eta 178 km-ko muga hurrenez hurren). Mendebaldean Gipuzkoa eta Araba (97 km eta 93 km-ko muga, hurrenez hurren).

Osotara 757 kilometroko perimetroa.


Estaca de Varesko muturra
43º 47´ Ipar latitudea
Touriñán muturra
9º 18´
Mendebalde Longitudea
10.421 km2
ANDORRA
Creus muuturra
3º 19´
Ekialde Longitudea
504.750 km2
Greenwicheko 0º meridianoa
Mendebalde Longitudea
Ekialde Longitudea
Tarifako muturra
36º 00´ Ipar latitudea
NAFARROA ETA ESPAINIAKO AZALERA
ETA ESPAINIAKO KOORDENATU GEOGRAFIKOAK



NAFARROAKO KOORDENATU GEOGRAFIKOAK

NAFARROAKO LONGITUDEA

Azalerari dagokionez, Nafarroa 23.a da Espainiako 50 probintzietan.

Biztanleria osoari dagokionez, Nafarroa 24.a da.

Biztanleria erlatiboari dagokionez, Nafarroa 27.a da.

ESPAINIAKO AZALERA,
504.750 KM2
29.560 km2
10.604 km2
5.321 km2
7.085 km2
10.421 km2
5.045 km2
93.898 km2
47.699 km2
31.895 km2
8.028 km2
79.408 km2
4.992 km2
23.253 km2
41.635 km2
11.314 km2
87.579 km2
20 km2
13 km2
7.447 km2
KK.AA.ETAKO LURRALDE AZALERA



NAFARROAKO KOKALEKUA EUROPAKO BATASUNAREN BOTERE EKONOMIKOAREN ERDIGUNEAREKIKO

Nafarroa Frantziaren mugakide delarik, kokaleku probilegiatua du Europako Batasunaren botere ekonomikoaren erdigunearekiko. Gune hori Londres eta Milan lotzen duen marraren inguruan dago, Amberes, Rotterdam, Frankfurt, Munich eta Zurich bezalako hiri aberatsak tarte direla.

Europatik Espainiara pasatzeko dauden bideetatik Mediterraneo aldekoak Bartzelona, Montpellier eta Zurich lotzen ditu eta, iduriz, hoberena da, Marsella, Turin edo Genova bezalako hiri ekonomia sendokoak ere hartzen baititu.

Nafarroak sarbide erraza du bide horretarako Ebro ibarrean barrena.



NAFARROAKO KOKALEKUA EUROPAKO BATASUNAREN BOTERE EKONOMIKOAREN ERDIGUNEAREKIKO

Nafarroa Frantziaren mugakide delarik, kokaleku probilegiatua du Europako Batasunaren botere ekonomikoaren erdigunearekiko. Gune hori Londres eta Milan lotzen duen marraren inguruan dago, Amberes, Rotterdam, Frankfurt, Munich eta Zurich bezalako hiri aberatsak tarte direla.

Europatik Espainiara pasatzeko dauden bideetatik Mediterraneo aldekoak Bartzelona, Montpellier eta Zurich lotzen ditu eta, iduriz, hoberena da, Marsella, Turin edo Genova bezalako hiri ekonomia sendokoak ere hartzen baititu.

Nafarroak sarbide erraza du bide horretarako Ebro ibarrean barrena.